

OPORRETAN ZER NAHIAGO?

Oporretara joateko aukeren inguruan hainbat lagunek zer nahiago duten azaldu dute. Kokatu hitz hauek dagokien lekuan eta deklinatu dagokien kasuan.

herri handia	hotela	hondartza
herri txikia	kanpina	mendia

1. Nik oporretarako nahiago dut _____ ; itsasoan bainatzea eta eguzkia hartzea asko gustatzen zait.
2. Niri oporretan _____ ibiltzea herri txikietan ibiltzea baino gehiago gustatzen zait; gauza gehiago daude ikusteko: museoak, eraikinak, dendak...
3. Oporretan, zalantzarik gabe, nahiago dut _____ joan hondartzara joan baino; askoz jende gutxiago egoten da eta gehiago erlaxatzen naiz.
4. Oporretan nahiago dut _____ ibili hiri handietan baino; haizea garbiagoa da, jendea oso atsegina da eta egun osoa kanean pasatzen dut lagunekin.
5. Niri gehiago gustatzen zait oporretan. _____ joatea ostatu edo hotel bat hartzea baino; naturatik hurbilago sentitzen naiz horrela.
6. Nik nahiago dut _____ joan kanpinera joan baino; ez duzu ezer egin behar, ez janaririk, ez txukunketarik... eta, gainera, egunero ohean egiten duzu lo, ez lurrean.